



Curriculum	Mikel Zorrilla
-------------------	----------------

Telekomunikazioetako Ingeniaria da eta Sistema Informatiko Aurreratuetako masterra du. 2013tik doktore tesia egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitateko informatika fakultatean (“Tecnologías interoperables para la creación y gestión de servicios multimedia multi-pantalla”).

Gaur egun FP7 [MediaScape](#) proiektu europarreko koordinatzaile tekniko eta zientifikoa da. Proiektu honetan Vicomtech-IK4-k beste zentro teknologiko batzuekin elkarlanean dihardu, hala nola [BBC R&D](#), [IRT-Institut für Rundfuntechnik](#), [W3C/ERCIM](#) edo [NEC](#).

2002tik 2007ra bere ikasketak IK4-Ikerlan zentro teknologikoko komunikazio saileko lanarekin uztartu zituen. 2007tik Vicomtech-IK4 egiten du lan, Telebista Digital eta Multimedia Zerbitzuen sailean. Interactive Media Technologies proiektuak diseinatu, garatu eta lidertzen ditu.

Gaur egun [Hbb4all](#) proiektu europarrean hartzen du parte.